



Marrazki bien artean dauden 10 ezberdintasunak bilatzea eskatzen zaizu.

Ea zelan moldatzen zaren!!

Jarraian, marrazkiaren bitartez irudikatzen den arrisku-egoera aztertu eta neurri zuzentzaileak proposatzea ere eskatzen zaizu.

Animo!!



**AZTER DEZAGUN MARRAZKIAK IRUDIKATZEN DUEN ARRISKU-EGOERA!!**

# EMAN ZEURE IRITZIA!!

Zer eta zergatik gertatu da??

## ARRISKU-EGOERA



## EGOERA-SEGURUA



## ARRISKU-EGOERA EKIDITEKO NEURRI ZUZENTZAILEAK!!

1	Bibrazioaren aurkako sistemak jartzen ahalegindu makinetan.
2	Bibrazioen iturriaren arabera, eragina jaso duen gorputz-partea zehaztu eta ebaluatu.
3	Esposizioaren iraupena eta intentsitatea mugatzeko neurriak hartu.
4	Bibrazio mekanikoen eraginpean egoteko premia gutxitzen duten lan-metodoak bilatu.
5	Aztertu zer beste lan-metodo balia daitekeen, bibrazio mekanoekiko menpekotasuna murrizteko.
6	Ibilgailu automotorea eta antzekoetan, gorputz osora transmititzen diren bibrazioen eraginak arintzeko eserlekuak jarri.
7	Makina eramangarriak erabiltzerakoan bibrazioen eraginak esku-beso sistemari eragiten dioten kasuetan, eragina arintzeko heldulekuak ezarri.
8	Laneko ekipamenduen mantentze-lanak egoki egiteko programak ezarri.
9	Esposizioaren muga-balioak eta jardunbide jakin bat abiatzea eskatzen duten esposizio-denborak jakin behar dira.
10	Gorputzera igortzen diren bibrazioak murrizteko edo arintzeko neurri teknikoak hartzen ahalegindu behar da.

**Proposa itzazu zeuk beste 5 neurri zuzentzaile. Animo!!**

1	
2	
3	
4	
5	

**Ekidin daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte??  
Zabal dezagun prebentzio-kultura!!**